



LARRABETZUKO
UDALA
AYUNTAMIENTO DE
LARRABETZU

LARRABETZUKO
UDALA

AURREKONTUAK
2018.
AURREPROIEKTUA

Alkatea



LARRAÑETZU
UDALA
AYUNTAMIENTO DE
LARRAÑETZU

2018. URTEKO AURREKONTUA PRESTETAKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

- **GIZARTEAREN ETA EKONOMIAREN GARAPENA**
- **INGURUMEN APUSTUA**
- **TOKIKO AZPIEGITUREN HOBEKUNTZEA**
- **TOKIKO ELKARTEENTZAKO LAGUNTZEA.**

GIZARTEAREN ETA EKONOMIAREN GARAPENA.

- Datozen urteotarako ontzat emondako inbersino-planagaz aurrera segidutea eta, horretarako, aurten partida handiagoa eskintzea inbersinoei, aurreikusi doguzan helburuak bete ahal izateko. 334.000 EURO.
-
- 2.000 euroko partidea (orain arte ez egoan holakorik), tokiko merkataritzaa sustatzeko.
- Memoria historikoa berreskuratzeko apustua egitea.
KARRADERAN+HERRIKO ELKARTEAK-AUZOKIDEAK+UDALAK

INGURUMEN APUSTUA.

- 2018An, urrats garrantzitsua emon behar dogu, Larrabetzuko birziklapenaren ehunekoa handitzeko. Horretarako, organikoaren bilketea areagotzeko (emaitzak bikainak dabilz izaten) eta hondarren bilketako NODOAK areagotzeko lanean sakonduko dogu, birziklapena areagotzeko.

TOKIKO AZPIEGITUREN HOBEKUNTZEA.

Aurtengo urterako aparteko partidak.

- Txokoko teilatua birgaitzeko, eta tximiniak konpontzeko 15.000 euro eta beste hobekuntzak: 2.000.
- Haurreskola margotu eta konponketa txiki batzuk: 15.000 euro
- 40.000 euro, landa-bideak hobetzeko. 24.000 gastau dira 2017an.
- Auzoetako seinaleak hobetzeko, 7.000 euro

TOKIKO ELKARTEENTZAKO LAGUNTZEA.

- Tokiko merkataritzeari eskinitako partida. 2.000 EURO
- % 6 handituko dogu tokiko kultura- eta kirol-taldeentzako diru-laguntzak. Iaz % 5 handitu genduzan diru-laguntzinoak. 2 urteetan %11 diruu laguntzak gehitu dira. Kultura 1.500 euro +, eta kirolak 1.000 euro gehiago.

EUSKARAREN ALDEKO APUSTUA.

- 2017. Urtean Ueman sartu gara. Honeri esker proiektu berriak martxan jarri dira eta 2018. Urterako beste proiektu batzuk martxan jarriko doguz
- Larrabetzuko hizkuntza ondarea, herriarekin batera eginteko proiektua martxan dau. 2018. Urterako, Euskara partidatik, 5.000 euro honetarako izango dira

AUKERA BERDINTASUNAREN ALDEKO PARTIDAK.

- Mankomunitatetik aparte (2017. Urtean, Larrabetzuk, 1.500 euro mankomunitatean jarri zuen), 13.000 euroko partida bat eukiko dogu,aurten ere.

ZERBITZUAK HOBETZEA ETA GEHITZEA.

- 2018. Urtean, kiroldegi eta igerilekuetako zerbitzua hobetzeko eta gehitzeko +20.000 euro jarriko doguz.
- SIEGA ZERBITZUA lizitatuko dogu eta ziega eta bideetako sastrakak kentzea zerbitzua gehitu egingo da. Honetarako diru partida %15 gehituko da

NABARMENTZEKOAK DIRAN BESTE PUNTU BATZUK.

- Garbiketa-zerbitzuak udalekotzea, Haurreskolako kasuan, eta gastuak aurreztea eta zerbitzua hobetzea.
- Gastu arruntak egokitzen segidutea, eraginkorragoak izateko: Telekomunikazioetako gastuak, mantentze-lan batzuetakoak, argia (LED argiak errebaletako futbol zelaian)...
- Arazo ekonomikokoak daukiezan familientzat, 2018. Urterako 5.000 euro egongo dira (igaz baino +1.000 euro)

EGINDAKO INKESTATIK ATERATAKO ERABAKIAK:

HIRIX+ PAPEREAN jasotako bozkak kontutan eukita, honek martxan jarriko doguz:

- **SKATE modulo txiki batzuk martxan jarri 15.000 EURO**
- **Txokoa konpondu 10.000 euro teilatua + 7.500 beste batzuk**
- **Landa bideak hobetuko doguz. guztira 40.000 euro**
- **Auzoetako seinalizaio hobetu. 7.000 euro**

Jasotako beste proposamen batzuk:

- Udala konpondu.
- Aparkalekuak.
- Eleixaldeko errotonda egin
- Energia proiektu propioa....

AURREKONTUEN XEHETASUNA.

DIRU SARRERAK.

2018. urteko Aurrekontuak aurrera eramateko, 3 punto garrantzitsuak dira:

- **AZKENENGO 6 URTEETAN ORDENANTZA FISKALEN GAURKOTZEA.** Honeri esker, Udalaren diru iturriak gehitu egin dira.
- **UDALKUTXAren diru sarrerak.** Azkenengo 7 urteetan, urtero, urtero diru itzuli behar zan eta aurten ez.
- **DIRU LAGUNTZAK ESKATZEA.** 2.017 urtean: 150.000 euro. 2018 urterako: 197.000 euro.

diru sarrerak / ingresos		
Udalkutxa (aldundia)	1.443.412,00 €	Diputación-Udalkutxa
zergak	570.000,00 €	impuestos municipales
tasak	375.651,00 €	Tasa y precios publicos
dirun laguntzak (EJ-ALDUNDIA)	197.000,00 €	Subvenciones (GV-DIP)
beste batzuk+	6.000,00 €	Otros
GUZTIRA	2.592.063,00 €	Total

SARRERAK, DIRU LAGUNTZAK:

Plazako aterpea egiteko 70.000 zihurtatuta daukaguz.

Karabana gunea egiteko, aldundiatik 33.000 euro espero doguz

Eskolako aterpea egiteko, EItik %30-%50 finantziazioa espero dogu.

Eta beste alde batetik beste diru laguntzak: euskara, Liburutegia, Osasuna aldetik....

LANGILEEN GASTUAK.

2018rako gastuak, guztira... 482.000 euro.

Hemen soldataren %1,5 igoera eta jornada erdi bat gehiago kotutan euki dogu.

2. GASTUAK

2018. urterako, gastu orokorrak %7 areagotuko doguz. 2017an, ordea, gastuek behera egin eben, 2016aren aldean. Gorakada egongo bada be, gastu finkoei eutsiko jake eta batzuk murriztu egingo dira, baina partida batzuk aparteko gastu batzuetara bideratuko dira eta horrek ez dau gorakadarik ekarriko etorkizunean egiturazko gastuan.

Garrantzitsua da gastu batzuen kudeaketa berreskuratzeko erabagia eta, horretarako, haurreskolan garbiketa-jarduera zuzenean egitea, udal-beharginen bidez. Enplegu-eskintza publikoaren bidez sartu zan eta lanaldi erdian behar egiten eban personak lanaldi osoan egingo dau behar, eta haurreskolea garbitzeko beharrak egingo dauz. Horrek kudeaketa hobea eta gastuen murrizketa orokorra ekarriko dauz.



LARRABETZU
UDALA
AYUNTAMIENTO DE
LARRABETZU

2018KO INBERTSIOAK.

Inbertsinoen plan estrategikoagaz segiduten dogu. 2017an, inbertsinoak egin genduzan eskolan eta haurreskolan, Errebale Jauregian, lokala erromesen aterpetxe izateko baldintzetara egokitzeko, eta, eraginkortasun energetikoa hobetzeko, futbol-zelaiko argiak aldatu doguz, eta horrek % 70eko aurrezpen energetikoa ekarriko deusku. Egin diran inbertsinoak, guztira, 260.000 euro izan dira.

. 2018rako inbertsinoak:

- **Autokarabanen aparkalekua: 180.000 euro.**
- **Plazako aterpea: 110.000 euro.**
- **Eskolako aterpea: 200.000 euro.**
- **Ibilgailuetarako aparkalekua pilotalekuaren atzean + mugikortasun plana: 100.000 euro.**

Hau finantziatzeko, 2018. Kontuak + erremanenteak